

## **21. EUSKAL DENDA**

---

### **AURKEZPENA**

Abenduko zubiarekin batera dator artisauak Euskal Herrian duten hitzordurik garrantzitsuena: Euskal Denda; Arbaso artisauen elkarteak antolatutako honek 21. edizioa du aurtengoa. Euskal Herriko artisautzaren erakuslehorik inportanteena da. Badaude beste azoka batzuk gure lurraldeetan, urtean zehar, baina Durangokoa da mimo handienaz antolatzen duguna, beste behin ere, Durangoko merkatu plazan.

21. edizio honetako Euskal Dendak, “*jalgi hadi mundura...*” leloaren bitartez, urratsez urrats, mundura agertu daitezen animatu nahi ditu artisauak; uste baitugu, euskal artisautzak presente egon behar duela ekintza instituzionalei laguntzen, kulturaren beste adarretako baten gisara. Hartara, nahi onak eta berri horiek sostengatzeko irudi ezin hobea aukeratu dugu aurtengo azoka sustatzeko, urratsak ematen lagunduko digun makila enblematikoa, hain zuzen ere.

Abenduaren 2tik 6ra, Euskal Denda ezinbesteko topaketa izango da artisautza bizirik dagoen sektorea dela egiaztatzeko, baita tradizioz, lanbidez onez eta trebetasunez beteta iristen dela erakusteko ere. Baina batez ere, ilusioz eta itxaropenez dator, bilakaeraren bilakaeraz, gure mugak gainditzeko gogoekin datorren sektore aitzindaria izanik. Arbasoko bazkideak kanpora begiraten ari dira bereziki; izan ere, aurten gure artisautzak nazioartekotzeko esperientzia izan du, ekaina eta uztailean, Washington DC-n egin den Smithsonian Festibalean parte hartu baitugu.

Hamarkada biren ondoren egiten dugun gogoetari esker, aukera dugu sektorean izandako aldaketak eta egindako bidea ebaluatzeko. Hamarkada luze bietan, ezina egia bihurtu da esfortzuz, lanaz, adorez, konfiantzaz. Orain, erronka berrien gaineko hausnarketa egin behar dugu, nazioartekotzea da horietako bat.

Azoka finkatuta dago denon egutegian, ekoizleenean eta bisitarienean. Esan bezala, azkarregi aldatuz doan etorkizun berrira begirako hausnarketa egin behar dugu, beraz, erritmoa egokitu, bilakaera eragin eta lan ona munduratu beharko dugu.

## **HELBURUA**

Beste behin ere, Euskal Denda sektorearen erakustoki onena izango da. Helburu nagusia artisautza tradizionala zein garaikidea bultzatzea eta merkaturatzea da, beti ere, Euskal Herrian egindakoaren zigiluaz.

Profesional hauek biziraungo badute, behar-beharrezkoa da, krisi garaian, artisauen lana bertatik bertara ikusaraztea; horixe baita Euskal Dendaren funtsa, hain zuzen ere. Izan ere, artisautza bizimodu bat da, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko modu bat da, baita garapen ekonomikoa sustatu eta, gaur egun, galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko modu bat ere. Horrela bada, ekimen honen inguruan Euskal Herriko artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira. Ezin dugu ahaztu artisautza bizimodu bat dela.

Gure artisautzak badu mugak gaindi ditzakeen kalitatea; beraz, horixe izango da helburua epe labur eta ertainera, noranzko horretan lan egin behar baitugu.

Esperientzia honi esker, bisitariak konprobatu ahalko du antzinako lanbideak oraindik bizirik daudela eta, era berean, artisau produktuak onak direla. Halaber, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat ere bada, eta galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko. Hartara, ekimen honen inguruan, Euskal Herrietako artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira.

## **EUSKAL DENDAREN IBILBIDEA**

Euskal Denda gero eta ezagunagoa eta bere arrakasta gero eta handiagoa da. Hala ere, oraindik ez du mugara jo. Iaz 23.000 bisitari izan dituela eta hori lorpen handia hartu zuela bere momentuan, baina, Arbasoren ustez kopuru hori gaintitu daiteke. Aurtengo edizioan, ekonomia globala pairatzen ari den krisialdia gaintituko delakoan, espero dugu bisitari kopurua handitzea eta salmenta gehiago izango dugula.

## **PARTE HARTZAILEAK ETA ESPEZIALITATEAK**

Aurrekoetan egin den antzera, Euskal Dendak Euskal Herriko lurralde guztietako ordezkariak izango ditu. Guztira 52 artisau izango dira Araba, Bizkaia, Nafarroa Behera, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroatik etorritakoak. Espazio txikia dugula eta, Euskal Denda ezin da gehiago hazi, ezinezkoa du artisau gehiago sartzea. Hala ere, urterik urte, lanbidea egokitu eta garaikide bilakatzeko eginahalak egiten dituzten artisau abangoardista gehiago ekartzen ditugu. Etorriko diren denetatik, hamazazpi izango dira lehenengoz gure artean, artisautza azokan.

Lurraldekako parte hartzea dela eta, Bizkaiak izango du ordezkari gehien, hogeita lau artisau, iaz baino lau gehiago. Gipuzkoatik hamalau izango ditugu; Nafarroatik zazpi; Arabako ordezkariak, iaz bezala, bost izango dira; Lapurditik eta Nafarroa Beheratik bana izango dira.

Artisautza jarduera handiaren epizentroa den Durangaldeak sei ordezkari izango ditu Euskal Dendan: Elorrioko **Anitha Mol**, paperezko fantasiako bitxigilea. Amabitxiak firmako **Amagoia Salazar** lehenengoz etorriko da bitxigintzako proposamen berriekin. **Rosa Etxabe**, zeramikari eta grabatzailea. **Restaurarte**, 2010eko stand onena sariaren irabazlea ere han izango da. Eskualdeko taldea osatzeko, beste durangar bi izango ditugu: **Bea Unzuetak** zuntz begetalak erakutsiko ditu eta **Eneko Unzaluk** bitxiak.

Sektoreei dagokienez, aurtan bitxigintza, zeramika eta ehungintza dira nabarmentzekoak, 9, 8 eta 7 erakusketari izango ditu bakoitzak, hurrenez hurren. Firma berriak hamazazpi izango dira, iazkoan baino bi gehiago. Beraz, esan dezakegu, azokaren % 34,6 berri dela.

### **ARABA:**

Arabako ordezkarien erdia lehenengoz etorriko da, esaterako, nekazaritzako elikagaien sektoretik, Idiazabal jatorri-deitura duen Ziorregi S.C. gazta egilea. Halaber, lehenengoz izango dugu azokan koadernaketa lantzen duen A Tu Vera firmako Ana Herrero.

### **NAFARROA BEHERA:**

Mixel Curutchet Etchart, Arnabar, ahatekiak.

### **BIZKAIA:**

Bizkaiko ondorengo bederatzi artisau-enpresek parte hartuko dute lehenengoz:

Esteban Iglesias, Enkarterrietakoa.

Begoña Fernandez, Eskulore, lore lehorrak, Larrabetzukoa.

Amagoia Salazar, Amabitxiak, Elorrioko bitxi-denda.

Begoña Del Amo, Bazeramika, Portugaletekoa.

Maria Teresa Urkiza, Redmasai, Iarrua, Arrietakoa.

Samuel Burley, Burley Jewellery, bitxigintza, Bilbokoa.

Francisco Javier Seco, zeramika, Bilbokoa.

Mari Fe Bueso, Itxasloo, ehungintza, Portugaletekoa.

Aurkene Rementeria, Aurkenejoyas, bitxigintza, Bilbokoa

**GIPUZKOA:**

Gipuzkoa ez da atzean gelditu, eta lau firma berri etorriko zaizkigu; horietako bi ehungintzan ari direnak: Mireia Segura, Zumaiako Mai KYK-ekoa, eta Donostiako Maria Luisa Liceaga.

Bitxigintzan eta zeramikan ere badaude parte hartzaile berri bi 21. edizio honetan: Mainer Mendinueta, EMEBERHIRUkoa eta Maialen Zabalza, Azkoitiko zeramikaria. Aipatutakoek estreinaldia dute aurtengo Euskal Dendan.

**NAFARROA:**

Nafarroatik lehengoz iritsiko zaigu Jose Ramon Mazkieran, Eguzkilore firmakoa. Ekoizpen berria dakar: eguzki-lorea erein, hazi eta, batu ondoren, lehortu egiten ditu.

## **2016ko JARDUERAK**

Euskal Dendak beti hartzen ditu aintzakotzat bisitariak, artisautza tradizionalen murgiltzeko asmoarekin. Aurtengo 21. edizioan, bada, are gehiago. Asmoa baita ekoizleak bertatik bertara ezagutzeaz gain, antzinako lanbideak ezagutaraztea eta horietan sakontzea. Horregatik bada, bertan, zuzeneko erakustaldiak egingo dituzte. Beharbada, tailerrak eta erakustaldiak dira azoka hau Euskal Herrian egiten direnetatik berezia egiten dutenak. Beraz, aurten ere, bisitaria ikuslea izateaz gain, pieza bat sortzeko prozesuan parte hartu ahalko du.

Aurten bertoko garagardo erakusketa egongo da. Horretako, Arbaso Euskal Garagardo Elkartearekin harremanetan izan da, eta hoiekin batera antolatu da. Lehenengo erakustaldi honetan lau marka euskaldunek parte hartuko dute, honako hauek izango dira: Mungiako Boga, Oiartzuneko Pagoa, Sondikako Txorierrri Garagardoak eta Zamudioko UrbanBeer. Hauek garagardo-dastatzeak egingo dituzte, eta euren ekoizpena azalduko dute, besteak beste. Merkatu plazako atrioan izango dute kokapena.

Halaber, Euskal Dendaren bost egunetan, “artisau despistatua” lehiaketan parte hartu ahalko dute bisitariak, beraiek izango baitira protagonista eta hautatuko baitute zein izan den erakustoki onena. Bisitarien artean erosketa-baleak zozkatuko dira.

## **KARTELA**

Aurtengo kartelaren irudia makila sorta da; artisauak irudikatzen ditu, makila bakoitza artisau bat da. Denak dira desberdinak, bakoitzak bere funtzioa betetzen du. Makila erreferentziako elementua da gure herri-kulturan, sostengurako osagaia, lagungarria eta euskarria.

Kontzeptu horiek guztiak geureak egin nahi ditugu Euskal Dendaren edizio berri honetan, eta egiten dugun lan bikain hori munduari erakutsi, zabaldu, ezagutu dezaten eta aitortuak izan gaitezen. Mundu lehiakor eta joera klonikoa duen horretan ezagutarazi nahi dugu gure lan bakana, indar handiko diseinu eta nortasunaz.

## **ARTETSU GALA**

2005ean hasi ginen Artetsu sariak ematen, Arbaso elkartearen hamargarren urteurrenarekin batera. Sari hauen bitartez, banakakoen edota entitateen lana aintzat hartu nahi dugu. Halaber, konplizitaterako bidea eta loturak sortu nahi ditugu aipaturiko lan hori apurka-apurka hazten joan dadin eta, era horretan, gure artisautzaren aldeko hain garrantzitsua den kontzientziazioa ere eragingo dugu.

Horregatik bada, zentzu guztietan artisautzaren alde egiten duten artisauak, erakundeak eta hedabideak saritzen ditugu. Hamabigarren edizio honetako Artetsu sariak honakoak izango dira:

### **BIZITZA OSOA:**

María Jesús Cortabitarte, Jaialdi.

### **EUSKARA SUSTATZEA ETA TRADIZIOAK HEDATZEA:**

Etxepare Euskal Institutua.

### **ERAKUNDEAK LAGUN:**

Iurretako Udala.

### **HEDABIDEAK:**

DOTB Durangaldeko Telebista

Sariak emateko gala abenduaren 2an, ostiralean, egingo da San Agustín Kultur Gunean, arratsaldeko 20:00etan. Horrez gain, Bogoroditsie abesbatza omenduko da, haren 20. urteurrenean.

Sariaren ikurra esku bat da, gai eta tresna nahitaezkoa, ezinbestekoa artisautzan jarduteko. Beiraz eginiko alegoria bat da, gardentasuna, argia, ardura eta lan-xehetasuna adierazten dituena. Egilea, Bilboko Iker Sanz da, Iger by Aker artisau-tailerrekoa.

Hona hemen, sortzaileek piezari buruz duten ikuspuntu poetiko eta filosofikoa:

*“Hastapenetara atzera eginez gero, esku sendoa ikusten dugu, oinarrizko tresna itxuraduna. Zabalik dago, unearen zain, ideiaren zain, prest aldaketa has dadin. Biluzik dago eta, milioika argi tindatuk inguratuta, bere barrena zeharkatzen uzten digu; badirudi aurkako material aldakor batek osatu duela”.*

## **ARBASO: sustatzaileak**

Arbaso da Euskal Dendaren eragilea; Gizarte Izaera duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia honakoa du: euskal artisautza tradizionala eta garaikidea bultzatzea Euskal Herrian.

Arbaso izaera nazionala duen artisauen elkarte bakarra da Euskal Herrian. Ia ehun artisau-tailer biltzen ditu. Helburuak honakoak dira:

- Euskal artisautza sektorearen ordezkariak izatea.
- Artisautza tradizionala ezagutaraztea eta egunero erabiltzea sustatzea.
- Labela edo jatorrizko izendapena lortzea euskal artisautza tradizionalarentzat. Gipuzkoan eta Nafarroan badugu kalitate-etiketa bat.
- Euskal artisautza eta kultura sustatu nahi duten erakunde publikoen eta pribatuen inplikazioa lortzea.
- Eguneroko artisauen lana zaintzea, berori baita gure ondare kulturalaren etorkizuneko giltzarria. Laburbilduz, belaunaldi berriei ezagutzera ematea gure herriaren usadioak, kultur tradizioan aberatsak gara-eta

## **FITXA TEKNIKOA**

---

**EDIZIOA:** 21.a

**DATA:** abenduaren 2tik 6ra

**ORDUTEGIA:** Goiza, 11:00 - 14:30  
Arratsaldea, 16:30 - 21:00.  
Asteartea 6, 20:00ak arte.

**INAUGURAZIO OFIZIALA:** Ostirala 2, 12:00etan

**ARTETSU SARIA:** Ostirala, abenduak 2, 20:00etan. San Agustín Kultur Gunean.

**ERAKUSTOKIAK:** 52

### **LURRALDEKA**

Araba 5  
Bizkaia 24  
    Durangaldea 6  
Gipuzkoa 14  
Lapurdi 1  
Benafarroa 1  
Nafarroa 7

### **SEKTOREKA**

Nekazaritzako elikagaiak 6  
Beira 2  
Zura 6  
Forja 1  
Otzaragintza 1  
Larrua 3  
Ehungintza 7  
Zeramika 8  
Arte 1  
Bestelakoa 1  
Euskal Kirola 1  
Kosmetika 2  
Bitxigintza 9  
Papera eta kartoia 2  
Lore lehorrak 2

**LELOA:** “Jalgi hadi mundura...”

**LEKUA:** Durangoko udal merkatu plaza.  
1.600 m<sup>2</sup>



**LEHIAKETAK:** Artisau despistatua  
Publikoren ustez, erakustokirik politena.  
Zozketa: Erosketarako baleak

**BABESLERIK NAGUSIENA:** Bizkaiko Foru Aldundia

**BABESLEAK:** Durangoko Udala  
Durangoko Turismoa  
DEIA  
GARA  
ONDA VASCA  
ANBOTO

**INTERNETEKO HEDAPENA:** [www.euskaldenda.info](http://www.euskaldenda.info)  
[euskaldenda.blogspot.com/](http://euskaldenda.blogspot.com/)  
[www.arbaso.com](http://www.arbaso.com)

**KOMUNIKAZIO ARDURADUNA:** Lorea Madina  
[prentsa@arbaso.com](mailto:prentsa@arbaso.com)  
607 86 32 24